



EBAZPENA, 2017ko urriaren 30ekoa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinaren bitartez bertan behera uzten baitira diru-laguntza batzuk; izan ere, erakunde batzuei eman zitzaizkien, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritu nahi zutelako proiektuak egiten, Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana garatzeko (Prest_Gara 2017-18).

2017ko martxoaren 1ean emandako aginduaren bidez, Hezkuntzako sailburuak erakunde publiko nahiz pribatuei egiten die dei, proiektuak aurkeztuz Sailarekin lankidetzan aritzeko, Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana garatze aldera (EHAA, 2017-03-03).

Aipaturiko deialdiaren babesean, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak 2017ko apirilaren 14ko ebazpen batzuen bidez onartu ditu diru-laguntzak jaso ditzaketen proiektuak, 1.1, 1.2, 2.1, 2.2 eta 3 multzoei dagozkienak.

Irakasleek prestakuntza-jardueretan parte hartzea eskatzeko epea amaituta, ikusirik deialdi-aginduaren 12.5 artikulua dioena, hots, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak bertan behera utziko dituela jarduera-proiektuak egiteko diru-laguntzak, baldin eta, irakasleak matrikulatzeko hasierako epea igarota, aurreikusitako plazen % 40 bete ez bada,

Honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Bertan behera uztea eranskinean jasotako erakundeei emandako diru-laguntzak, prestakuntza-jardueratan ez baita bete aurreikusitako postuen % 40.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, ez baitu administrazio-bidea agortzen, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburordeari, ebazpena elektronikoki jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 30a

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaria
LUCIA TORREALDAY BERRUECO



ERANSKINA I
BLOQUE 1.1 Prest_Gara 2017/18
(60% 2017an y 40% 2018an)

IFK	ENTITATEA	EZEZ.	2017	2018
B01341619	Komalingua SL	14.578,00	8.746,00	5.831,00
F20072609	Mondragon Lingua Sociedad Cooperativa	8.800,00	5.280,00	3.520,00

BLOQUE 3 Prest_Gara 2017/18
(60% 2017an y 40% 2018an)

IFK	ENTITATEA	EZEZ.	2017	2018
G48237556	Urtxintxa astialdi eskola-bizkaia elkarte	3.000,00	1.800,00	1.200,00

BLOQUE 1.2 Prest_Gara 2017/18
(60% 2017an y 40% 2018an)

IFK	ENTITATEA	EZEZ.	2017	2018
W0061076F	Delegación en España de la fundación British Council	6.450,00	3.870,00	2.580,00
B20499174	Welcome School of English sl	9.707,00	5.824,20	3.882,80

BLOQUE 2.2 Prest_Gara 2017/18
(60% 2017an y 40% 2018an)

IFK	ENTITATEA	EZEZ.	2017	2018
G95866059	Asoc de Inteligencia Social Prevención y Gestion de Conflictos	2.002,00	1.201,20	800,80
G20040689	Asociacion Aransgi	1.533,00	919,80	613,20
G48423362	Asociacion Gitana Kale Dor Kayiko	3.000,00	1.800,00	1.200,00
Q4818001B	Euskal Herriko Unibertsitatea EHV-UPV	2.647,00	1.588,20	1.058,80
G95748356	Fundacion EDE/EDE Fundazioa	2.715,00	1.629,00	1.086,00
B95731360	Ibai Pedagógica y Formación SL	3.350,00	2.010,00	1.340,00
G95762191	Ortzadar Fundazioa-Fundacion Ortzadar	3.250,00	1.950,00	1.300,00